

4.- ZELAN BIZI DIRAN



Gizakia aste batzutan bizi leiteke jan barik, egaztiak be bardin. Esaterako arrano batek illebete egin leike barau eta oillo batek amar egun... Ba-dagoz txori batzuk ordu gitxitan jan barik bizi leitekezanak.

Egaztiak danerako dabiltz arin: gure biotzak minutuko 70 taupada daukaz, oilloak oster 312 eta etxe-txoriak 460. Eurentzat 45 graduko beroa gorputzean, bero ona da.

Txoriak sarritan jan bear dau. Eguzkia urteten danetik sartzen danera, jan eta jan dabil. Euren pisua lako bi jaten dabe egunero geienak.

Orregaitik, euren lanik aundiena jatekoa billatzea da, geienak egunean eguneko billatzen dabe.

ZOMORRO-JALEAK

Zomorroak asko ugaritzen dira, milloiak arrautzak eginda, eta mundua beteko leukee euren jalieak ez ba'legoz. Ori da izadiaren bidea dendu do ekilibrioa lortzeko.

Enara edo elaia da orretan bizkorren, zapelaitza be ona da. Okillak bere min luzeagaz (10 zm.) jaten dauz zugatz azaletan gorde diran zomorroak.

FRUTA-JALEAK

Basa-frutuak jaten dabez lenen, batez be aleak, orretarako piku sendoa ta laburra dauke. Neguan eta udan euren janari egokiak aurkitzen dabez. Gaiñera aurkitzen dabez zomorroak be ez dabez alboratzen.

ARAGI-JALEAK

Egazti arrapariak dira oneik, baiña ez dabe kalte aundirik egiten. Zapelaitza (alcón) da onein artean ederrenetarikoa: egon luzeak, muztur zorrotza, egitura apaiña, arin egiten ona (goitik beera 200 km.'ko abiadura artzen dau): txoriak arapatzen ditu (usoak, belak, kaioak). Anketan arrapatzen dauz, ez iñoz pikuan. Gogoratu antzekoa dan gure baserrietako mirua.

Gabaz saguzarra da dabillen bakarra, iñoz gabontzak urrean dirala. Ontz batek urtean 6.000 sagu arrapatzen dauz. Irundi egiten dauz eta gero uleak eta azurrak bota. Mesedegilleak dira.

ARRAIN-JALEAK

Errekea zugatz-artean doa eta biurgune baten agertuko da "martin pescador" edo matxin-arrain txori bulargorria.

Matxi-arrain'ek mundu guztian egiten dau bere lana, beroa dagon lekuetan. Erreka-ondoan dago zain, arraiña agertu-orduko gaiñera joako bala baten antzera eta pikuan artzen dau arraiña. Gero lengo lekura doa. Berak 15 zm. ditu eta jaten dauan arraiña, sarritan, zazpi zm.'koa izan leiteke. Igelak eta zapaburuak be jaten dauz.

Ba-dagoz onein antzeko beste egazti batzuk be urgazatan dabiltenak: gartza pikuluzea esaterako.

Beste txori arrapari batzuk be aragi-jaleak dira. Esaterako arranoak ankaz arrapatzen dau, erpa zorrotzak daukazalako, mirua...

OLAZAR'tar Martin'ek